

Nerabeen gauetako irteerak

Nerabezaroak, seme-alabengatik eskakizun berriak dakartza, besteak beste, gauetako irteerak. Eskaera hauen aurrean, gurasoek jakin behar dute:

- Non eta norekin izango den gaueko ordu horietan.
- Helduak egongo diren, eta hala bada, nortzuk izango diren.
- Gauean zer egingo duten (dantzatu, jolastu...).
- Ze ordutan hasi eta bukatuko den.
- Norekin itzuliko den etxera.
- Bizitokitik urrun dagoen kontzertu edota jai batera joatekotan, hobe da beti gurasoek seme-alaba nerabeak laguntzea eta ondoren jasotzea, beraiek bakarrik garraioekin moldatzen uztea baino.

Oro har, gauetako irteerei dagokienez, jarraibideak honako hauek izan daitezke:

- Nerabeari adierazi behar diogu jartzen zaizkion arauak, bera babesteko jartzen direla eta ez zigortzeko. Kontrako iritziak oihartzun handia hartu badu ere, gertatu ohi da nerabeek arauak onartzen dituztela eta kontuan hartzen dituztela gurasoen aholku eta oharrak.
- Ez da gogogabetu behar arau horien aurrean, nerabeek aurkakotasuna edo axolagabekeria adierazten dutenean. Gehienek, sakon-sakonean, gurasoen gomendioak hartzen dituzte kontuan. Independentziarako grina izan arren, seguru sentitzen dira familia beraietaz arduratzen direla ikustean edota edozer txarra gertatzen zaienean alboan dituztela ikustean.
- Garrantzitsua da nerabeen irteerekiko interesa adieraztea. Kontzertua gustatu zaion edo ez, edo festan zer moduz pasatu duen galdetu. Horrela, beraien iritzia kontuan hartzen dela ohartuko dira, beraiekin elkarrizketak izateko bidean. Era berean, nerabeari, bere bizitzako momentu jakin batzuk, berarentzat gordetzeko duen nahia errespetatu behar zaio, tematiak izan gabe.

Ez da gomendagarria:

- Ez dira gauzak bere onetik atera behar eta ez zaio nerabeari irtetea debekatu behar, norbere kontzientzia lasaitze aldera edo bere bizitza sozialaren kontrol osoa edukitzearen. Jarrera zorrotz horrek gurasoek hainbat egoera bideratzeko duten gaitasun eza erakusten du.
- Gauetan kalera irteten ez uztea, era berean, nerabea nagusia egiten ari dela ikusi nahi ez izatearen adierazle da. Seme-alaben independentzia onartzea, konfiantza izatea eta beraien errespetua bereganatzea,

nolabaiteko askatasuna ematea da, beraiekiko arreta mantentzen jarraitzen dela. Horrela, beraien bizitza sozialarekiko interesa dugula azaltzen diegu, beraien espazio propioa errespetatzen dugun era berean.

- Seme-alaben irteerak eragozteak, gauen aurki ditzaketen arriskuen “beldur” garelako (alkohola, drogak, erasokortasuna), nerabearentzako, bere erantzukizun eta irizpidearekiko konfiantza falta baten adierazle da eta horrek jarrera positiboak baino, negatiboagoak izatera eramane dezake. Beraiekin hitz egin behar da zintzoki, argi eta beraien jokabidean nolabaiteko konfiantza izanik.

Laburpena

Nerabezaroa, ume bat heldu bilakatzeko prozesua da. Testuinguru honetan, eta seme-alabei irteteko baimena eman baino lehen, zenbait jarraibide jarraitu behar dira, bereziki, nerabeak gazteagoak direnean.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luís Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia